

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2.000 bat ikaslek parte hartzen dute naturan jarduerak egiteko NKGIk bultzatutako hezkuntza eta kirol proiektuan

Datorren ekainaren 13ra bitarte, 41 zentroko 3. eta 4. DBHko ikasleek programa honetaz gozatzeko aukera izango dute Baztanen eta Bertizaranen

Astelehena, 2018.eko ekainak 4

2.000 ikasle inguru, haien ikastetxeetako irakasleekin batera, ikasturte honetan parte hartzen ari dira Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak bultzatutako hezkuntza eta kirol proiektuan. Jarduerak DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat dira. Kanpaina honetan, hezkuntza bereziko zentroek ere hartzen dute parte; hots, desgaitasun fisikoak, psikikoak eta sentsorialak dituzten ikasleak hartzen dituztenek.



Rubén Goñi Iruñeko San Cernin ikastetxeko ikasle-taldearekin.

NKGiko zuzendari kudeatzailea den Rubén Goñik otsailaren 28az geroztik garatzen ari den programa bisitatu du gaur; programa ekainaren 13an amaituko da Baztango haranean eta Bertizaranan. Programa hiru egunetan garatzen da, eta parte-hartzaileek naturarekin zuzeneko harremana duten jardueretan parte hartzen dute; hala nola, piragua, rafting, hidrospeed, arborismoa, tirolinak, ferrata bidea edo kanoien jaitsiera. Aldi berean, ingurumenaren gaineko sentsibilizazioa eta ingurunearen ezagutza bezalako alderdiak lantzen dituzte.

Hezkuntza eta kirol mailako programa erreferentziatzko jardueretariko bat da Nafarroan DBHko bigarren zikloa ematen duten ikastetxeentzat. Programaren helburua da naturan jarduerak egitea bultzatzea, parte-hartzaileen gaitasun fisikoak eta eragileak hobetuaz, bizitzeko ohitura osasungarriak finkatzearekin batera. Halaber, balioak garatzen dira: adiskidetasuna, gainditzea, inklusioa, errespetua eta genero-berdintasuna, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bidez bultzatzen duen Kiroleko Balioen Planarekin bat eginaz.

Gainera, programari esker, Baztango eta Bertizaranako historia, kultura eta ohiturak ez ezik, leku enblematikoenak nahiz ingurune geologia, flora eta fauna ere ezagutu daitezke, ondare naturalaren eta kulturalaren errespetua eta zaintza sustatuz.

Euskarazko txandetan, euskararen erabilera ere lantzen da, programan parte hartzen duten ikasleak hizkuntza horretan murgiltzea erraztuaz; izan ere, zona horretan euskaraz hitz egin ohi dute haurrek zein pertsona helduek.